

256 GB-KO IPHONE X SMARTPHONE BAT ZOZKETATUKO DA GOGOBETETASUN-INKESTARI ERANTZUTEN DIOTEN BEZEROEN ARTEAN

1.- Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean LABORAL Kutxa—, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500— duenak, 256 GB-ko iPhone X smartphone bat zozkatuko du, sustapen baten barruan.

2.- Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokia arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarriarik ordaindu behar.

3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, 2018ko martxoaren 20tik ekainaren 29ra bitartean (biak barne) LABORAL Kutxaren inkesta online, telefonoz edo SMS bidez betetzen badute.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleak, saria erreklamatzekotan, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

4.- Zozketa

Zozketa 2018ko uztailaren 26ean egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean.

Gainera, zozketan ordezeko 3 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun balioduneko epean, saria ordezekoentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

256 GB-ko iPhone X smartphone bat bidaliko zaio irabazleari, bezero den LABORAL Kutxaren bulegora.

6.- Sariaren fiskalitatea

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago, eta zergak ordaindu beharko ditu. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, bere izen-abizenak argitaratzeko baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko eren.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.

